

9/2010 Ebazpena, Musikeneko koordinatzaile nagusiarena; martxoaren 29koa, honen bitartez, "Orkestra-zuzendaritza" irakasgaiko kolaborazio instrumentala hautazko kreditutzat edota aukera libreko kreditutzat aitortzen da.

10/2008 Ebazpenak ezartzen duenez, Musikeneko ikasketa-planeko irakasgai jakin batzuetan egindako kolaborazio instrumentaleko jarduerak hautazko kredituekin edota aukera libreko kredituekin amortiza daitezke, kasuen arabera. Kolaborazio horiek irakasgai jakin batzuetan amortiza daitezke, eta irakasgai horien zerrenda Ebazpen horren 2. artikuluan jasota dago; nolahi ere, zerrenda hori "gutxi gorabeherakoa" da.

"Orkestra-zuzendaritza" irakasgaiko kolaborazio instrumentalaren ezaugarriak kontuan hartuz, eta gutxi gorabeherako zerrenda horretara jotze soila baino segurtasun juridiko handiagoa izateko, kolaborazio hori adierazitako zerrendan sartzen da. Horregatik, inplikaturako irakasleek derrigorrezko txostenak eman ondoren, dagozkion kredituekin amortizatu ahal izango da kolaborazio hori, eta amortizatutako kreditu horiek ez dira ordaindu beharko matrikulan.

Kredituak amortizatzeko prozedura lehen adierazitako 10/2008 Ebazpenaren 5. artikuluan adierazitakoa izango da, 2009-2010 ikasturtean bat-batean gertatutako kasuetan izan ezik, horietarako ez baita beharrezkoa ikasle hautagaien ezein zerrendatan aldezturik izena ematea.

Resolución 9/2010, de 29 de marzo, de la Coordinadora General de Musikene, por la que se reconoce la colaboración instrumental en la asignatura "Dirección de orquesta" como créditos optativos o de libre elección.

La Resolución 10/2008 establece que las actividades de colaboración instrumental realizadas en determinadas asignaturas del plan de estudios de Musikene puedan ser amortizadas por créditos optativos o de libre elección, según los casos. La lista de asignaturas en las que estas colaboraciones pueden ser amortizadas figura en su artículo 2, siendo en todo caso una lista "orientativa".

Consideradas las características de la colaboración instrumental en la asignatura "Dirección de orquesta", y para mayor seguridad jurídica que el mero recurso al carácter orientativo de dicha lista, esta colaboración se incluye en la mencionada lista. Por ello, tras los preceptivos informes de los profesores implicados, tal colaboración se podrá amortizar por los correspondientes créditos, que estarán exentos del pago de matrícula.

El procedimiento para la amortización de créditos será el establecido en el artículo 5 de la mencionada Resolución 10/2008, salvando los casos sobrevenidos durante el curso 2009-10, que no requieren de la previa inscripción en ninguna lista de alumnos candidatos.

Donostia/San Sebastián, 29 de marzo de 2010eko martxoaren 29a

Carmen Rodríguez Suso
KOORDINATZAILE NAGUSIA / COORDINADORA GENERAL